


HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA



Ikusezintasuna arazoa denean

Ziur aski, jakin badakizu hortxe daudela, eta baliteke beraiekin nolabaiteko harremana izatea. Lankide ikusezinak dira, haurtzaindegikoak. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko langileak. Egoera oso anitza da, baina, seguru aski, zure ikastetxean 2 urteko gelez, urte bateko gelez, sehaskez... arduratzen den langile bat baino gehiago dago. Egiten duten lana aitortzen ez den arren, ez da pixoihalak aldatzera mugatzen.

Aipatu gelak gainontzekoetatik aldentuta egoten dira, ez dira gune berean egoten. Langileek ere ez dute gainontzeko irakasleekin bilerarik, klaustrorik, ikastarorik... egiten. Gutxi dira eta gainontzekoengandik aldentuta daude, beren egunerokotasunean murgilduta. Ez dute beren lan-egoera hobetzeko inolako aukerarik eta, ziur aski horregatik, gehienak gehiago baloratzen dituzten lekuren batera alde egiteko irrikaz daude.

Egunero-egunero zu baino lehenago sartu eta geroago irteten dira, seguru asko. Zu oporretan zaudenean ere lan egiten dute. Urtean egin behar dituzten lan-orduak zuk egiten dituzunak baino askoz gehiago dira. Ez dute ordu osagarriarik, eta ez zaie prestakuntza aintzat hartzen. Batzuetan, irakasle-titulua izaten dute, baina goi-mailako teknikari gisa kontratatzen dituzte, gutxiago ordaintzeko. Askotan, behin-behineko kontratua izaten dute; askok lanaldi partziala dute. Kontratua berrituko ez dieten beldur dira beti.

Mileurista izatera ere ez dira iristen, beren soldata Hitzarmeneko baxuena baita; eta gainera, 2011. urtea geroztik, zuri bidegabeki aplikatzen dizuten murrizketaren bikoitza ezartzen diete beraiei. Ez al zenekien?

Bada, egoera honen aurrean, ez dugu isilik geratu nahi. Zure elkartasuna lortu nahi dugu hainbat arlotan konpromiso zehatzak hartzeko kanpaina baten bitartez; izan ere, egoera honek erantzule bat baino gehiago du. Gaiak kezkatzen bazaitu, txosten hau irakurtzeko tartetxo bat hartzeko eskatzen dizugu, arren. Izan ere, lan-ezgonkortasunari buruz hitz egiteko, ez baita beharrezkoa beti urrutira begiratzea. Uste baino askoz gertuago duzu.

ZAURIAN PIKO

1. GERTAKARIEN NONDIK NORAKOAK

2010eko ekainean, gizarte ekimeneko eskoletako eta ikastoletako langile guztiengan, administrazio eta zerbitzuetaoetan izan ezik, eragina izan zuten soldata-murrizketak hasi ziren Murrizketak "proportzionalak" izan ziren, horrelako neurri batean nolabaiteko proportzionaltasunik badago: gehiago irabazten zutenei murrizketa handiagoa ezarri zitzairen. Era horretan, gizarte ekimeneko eskoletako Haur Hezkuntzako lehenengo zikloetako irakasleek bigarren zikloko edo Lehen Hezkuntzako lankideen antzeko murrizketa pairatu zuten; laguntzaileek eta goi-mailako teknikariek, berriz, irakasleak ez diren langileek jasandako murrizketa bera.

Baina 2011n egoera aldatu egin da langile horientzat, eta beren kalterako, gainera. *Kristau Eskolak* hiru mailetan soldata izugarri murrizteko erabakia hartu du. Finantzaketa-moduluaren murrizketa aitzakiatzat hartuta, neurriz kanpoko murrizketak ezarri ditu: gainontzeko mailetan aplikatutakoak baino askoz ere handiagoak. Gainontzeko patronalek ezarri ez duten neurri horrek aurretik zeharo larriak ziren lan-baldintzak biziki larriagotu ditu.

2. HITZARMENEO LAN-BALDINTZARIK KAXKARRENAK

Gizarte ekimeneko ikastetxeetako hitzarmeneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko langileak ez dira irakasletzat jotzen. Aparteko taldea dira, hirugarrena; eta horren barruan, hiru maila bereizten dira: irakaslea, goi-mailako teknikaria eta laguntzailea. Eta horixe da, hain zuzen, langile hauek diskriminatzeke lehen pausoa. Esate baterako, irakasleek 1.352 ordu lan egiten dute urtean, eta bigarren ziklokoek 1.252 ordu; baina teknikari batek 1.620 ordu egin behar ditu, irakasle ez den edozein titulatur 1.390 ordu sartzen dituen arren. Laguntzaileen kasuan, urtean 1.620 orduko lanaldia dute; baina administrazio eta zerbitzuetao langileek urtean 1.585 ordu sartzen dituzte.

Horrez gain, irakasletzat jotzen ez direnez, ez zaie 365 eguneko kontratua bermatzen. Hortaz, lanaldi partzialak izaten dituzte, bereziki 2 urteko gela bakarra duten ikastetxeetan, bigarren ziklokoarekin batera amaitzen baitute ikasturtea. Aste Santuan eta Gabonetan, irakasleek baino atsedeen egun gutxiago izaten dituzte, eta baita uztailean ere, ikastetxeak gela horiek zabalik mantentzen baditu. Horrez gainera, irakasle-titulua izan arren, teknikari gisa kontratatzen dituzte.

Soldatei dagokionez, Hitzarmenaren arabera, lehen zikloko irakasleek eta bigarrenekoek soldata bera kobratu behar dute, baina urteko lan-ordu kopurua handiagoa denez, lan-orduko soldata baxuagoa da. Goi-mailako teknikariek (gehienak kategoria horretan kontratatuta daude) irakasle batek egiten duen lan bera egiten dute, baina % 30 txikiagoa den soldataren truke. Laguntzaileen kasuan, kobratzen duten soldata hitzarmeneko txikiena da.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko langileak dira Gizarte Ekimeneko Hitzarmenaren barruan lan-baldintzarik kaxkarrenak dituztenak, administrazio eta zerbitzuetao langileak beraiek baino areago. Are gehiago, euskal hezkuntza sistema osoko lan-baldintzarik okerrenak dituztela esan daiteke.

3. EGOERA BESTE HITZARMEN BATZUETAN

Konpara ditzagun langile horien lan-baldintzak beste hitzarmen batzuetako antzeko langileenekin:

- **Ikastolak** ere ikastetxe kontzertatuak dira, eta ekimen sozialeko ikastetxeek jasotzen duten finantzazio bera jasotzen dute. Ikastolen hitzarmenak irakasletzat hartzen ditu langile horiek, horrek dauzkan ondorio guztiekin. Kasu honetan ere, hiru maila daude (irakaslea, hezitzailea eta hezitzaile laguntzailea), baina irakasleak irakasle-titulua duen ikastetxeke beste edozein langilek duen ordutegi eta soldata bera du. Hezitzaile-laguntzaileek urteko 1.585 orduko lanaldia dute (1.620 gizarte ekimeneko ikastetxeetan) eta gizarte ekimeneko ikastetxeetako langileek baino soldata handiagoa. Udan, gainontzeko irakasleek duten opor-egun kopuru bera dute, eta Aste Santuan eta Gabonetan irakasleek dituztenak.
- **Haurreskolak** partzuergoan maila bakarra dago: hezitzailea. Urteko 1.570 orduko lanaldia dute eta soldata 29.862 eurokoa da; alegia, pareko maila litzatekeen gizarte ekimeneko ikastetxeetako teknikariek baino % 25 gehiago kobratzen dute.

➤ **Ikastetxe publikoetako 2 urteko geletako** langileen artean maila bakarra dago: irakaslea, eta beste edozein irakaslek dituen lan-baldintza berberak dituzte. Urteko lanaldia zehaztea zaila den arren, 1.100 bat ordu sartzen dituztela esan genezake. Soldata 32.182 eurokoa da. Uztailean eta abuztuan oporrak dituzte, eta Aste Santuan eta Gabonetan ikasleek dituzten opor berberak. Honako taula honetan aipatutako guztiaren laburpena dugu:

	Irakasleak	Técnikaria/Hezitzailea	Laguntzailea, Hezitz. Laguntz.
URTEKO SOLDATA GORDINA			
Gizarte ekimena	31.290 €	22.200 €	19.223 €
Ikastolak	31.290 €	22.678 €	20.410 €
2 urteko gelak	32.182 €		
Haurreskolas		29.862 €	
URTEKO LANALDIA			
Gizarte ekimena	1.352 h	1.620 h	1.620 h
Ikastolak	1.293 h	1.585 h	1.585 h
2 urteko gelak	≈ 1.100 h		
Haurreskolas		1.570 h	

Gizarte Ekimeneko Hitzarmeneko Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko lan-araudiak ez du parekorik gainontzeko hitzarmenetan. Beraz, argi dago patronalak eta sindikatuek egoera honen erantzukizun zuzena dutela.

4. 2010 ETA 2011KO SOLDATA-MURRIZKETAK

Patronalak 2010eko irailean hasi ziren soldata-eta errespetatzeari uzten. Honako murrizketa hauek aplikatu zituzten:

Irakasleak			
	HH/LH	DBH 1	DBH 2- Batxilergoa-LH
Oinarrizko soldata	0,97 %	0,89 %	1,57 %
Antzinasuna	2,88 %	2,88 %	4,50 %

Tituludun langile ez irakasleak			
	Goi maila	Erdi maila	Hezkuntza Laguntzako Es.
Oinarrizko soldata	1,57 %	0,97 %	0,82 %
Antzinasuna	4,50 %	2,88 %	0,82 %

Haur Hezkuntzako Lehengo Zikloa			
	Maistra	Teknikaria	Laguntzailea
Oinarrizko soldata	0,97 %	0,82 %	0,82 %
Antzinasuna	2,88 %	0,82 %	0,82 %

Irakasleei Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako irakasleek jasandako murrizketa aplikatu zitzaizkien. Teknikari eta laguntzaileei, berriz, irakasle ez diren langileei aplikatutakoa. Baina *Kristau Eskolak* 2011ko urtarrileko nominetan erabilitako taulak begiratzean, konturatuko gara hitzarmenean adostutakoaren % 4,85eko murrizketa ezarri zuela Haur Hezkuntzako lehen zikloan, bai soldatan, bai antzinasunean. Horrek esan nahi du langile horiek 2011ko hitzarmenean adostutakoa baino gutxiago kobratu zutela:

	Oinarrizko soldata	Hirurteko bakoitzeko
Irakasleak	1.510 €	28,28 €
Goi mailako teknikaria	1.037 €	22,82 €
Laguntzaileak	902 €	23,52 €

Murriztutako portzentaia eta urteko kopurua neurritz kanpokoak dira, gainontzeko mailetan 2011ko urtarrilaz geroztik aplikatzen ari diren murrizketekin konparatuta:

	Oinarrizko soldata	Hirurteko bakoitzeko
HH-LH irakasleak	566 €	2,42
DBH 1 irakasleak	561 €	2,27
Bigarren Hezkuntza	1.041€	3,50

Maiatzeko Errege Dekretuak (Zapateroren dekretu famatua) doitze-neurriak arautu zituen, eta Eusko Jaurlaritzak lege-oinarritzat erabili zuen 3/2010 Legea, murrizketa-legea, garatzeko. Lege horren arabera, langile publikoen urteko soldata % 5 murriztu behar zen, batz bestea, eta murrizketak mailakakoak izango ziren soldatarik txikiena zutenek ahalik eta murrizketa txikiena jasan zezaten. Hortaz, profesional-taldearen diru-sarreraren arabera, murrizketak % 0,56 eta % 7 artekoak izango ziren. Baina aipatu dugun kasuan, soldatarik

